



## Hamar ikastetxe publikoetatik bederatzik baino gehiagok dagoeneko badute ataria Interneten

- [Unibertsitatez kanpoko 862 ikastetxe publikoen % 92,7k dagoeneko badute ataria Interneten](#)
- [Hiru ikastetxetik bik beren domeinu propioa dute Interneten](#)
- [Zentroen % 9k blog-teknologiak erabiltzen dituzte beren atariak programatu eta kudeatzeko](#)
- [Interneteko ataria duten erakunde publikoen ehunekoari dagokionez, Bizkaiko lurralde historikoari lotutakoak nabarmentzen dira \(% 95,2\)](#)
- [Bost sozietate publikotik batek oraindik ez du ataririk Interneten](#)
- [Euskal Autonomia Erkidegoko udalek atari publiko guztien herenak baino gehiago kudeatzen dituzte \(839\); batez beste, 3,3 kudeatzen ditu bakoitzak](#)
- [Bost ataritik batek ez du berariazko jarduerarik, zeharkako zerbitzuak eta edukiak eskaintzen baititu hainbat funtzio-arlotan](#)
- [Sei atari berdintasun-arloko zerbitzu, izapide eta edukien eskaintzan espezializatuta daude](#)

Atari Publikoen Direktorioak (Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak egiten duen errolda-izaerako eragiketak, alegia) euskal erakunde publikoek erabilitako Interneteko 2.327 atarien identifikazioa, egitura, ezaugarriak eta URLak bildu ditu 2019an, eta administrazioentzat eta gizarte osoarentzat eskuragarri dago orain.

### **Unibertsitatez kanpoko 862 ikastetxe publikoen % 92,7k dagoeneko badute ataria Interneten**


Interneten oraindik ataririk ez duten 63 ikastetxe publikoetatik, bi heren (42) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak dira, 8 zuzenean udalen edo mankomunitateen mende dauden edo erakunde autonomoak diren musika-eskola publikoak, 6 Oinarrizko Lanbide Heziketako udal-institutuak, 5 udal haur-eskolak, bat Helduen Hezkuntzako zentroa eta beste bat ikastetxe publiko integrala.

Kontuan hartu behar da ikastetxe publikoen atarien % 63,2 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendekoak direla, % 28,6 Haurreskolak Partzuergoaren mendekoak, % 4,4 erakunde autonomoen mendekoak, % 2,6 udalen mendekoak eta % 1,1 mankomunitateen mendekoak.

### **Hiru ikastetxetik bik beren domeinu propioa dute Interneten**

Ikastetxeek atari propioak sortzeko erabilitako teknologiak askotarikoak dira: hirutik bik (% 65ek) domeinu bakarreko webgune bat programatzen dute, herenek (% 34,1ek) atal propioak diseinatzen dituzte mende dauden erakundeko domeinuan, eta % 0,9k beren erakundearenaz bestelako atari bat aukeratzen dute.

**Interneten ataria baduten unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoak, ikastetxe motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2019.%**



**Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila. Atari Publikoen Direktorioa. ATARIKA 2019**

Erakunde mota kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 'Hezkuntza.eus' plataforma eta domeinua eskaintzen du. Domeinu hori 246 ikastetxek erabiltzen dute, hau da, erakunde horren mende dauden ikastetxeen ia erdiek. Haurreskolak Partzuergoak ere bere domeinua eskaintzen die atxikita dituen 228 zentroi. Udal-zentro gehienak (% 93,5), berriz, beren erakunde nagusien webguneetan daude kokatuta.

**Zentrozen % 9k blog-teknologiak erabiltzen dituzte beren atariak programatu eta kudeatzeko**


Sortzeko eta kudeatzeko erraztasuna dela eta, 72 zentrok (% 9k) blog-teknologiarekin diseinatu dituzte beren webguneak, eta lotutako blog batzuk ere sortu dituzte edukiak ikasturteen, jardueren eta abarren arabera antolatzeko. Zenbaitetan, webgune klasikoaren funtzioak betetzen dituzte. Gehienak (% 84,7) Eusko Jaurlaritzaren mendeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak dira.

Hezkuntza-izaerako edukiak eta izapideak eskaintzeaz gain, ikastetxe publikoetako webguneak ezinbesteko iturri bihurtu dira gurasoentzat, informazioa lortzeko eta ikasturtearen barruan egunero ematen diren zerbitzuak kudeatzeko: garraioa, jantokia eta eskolaz kanpoko jarduerak, funtsean. Horregatik, eta gurasoak erabat

digitalizatutako belaunaldietakoak direnez gero, erabiltzaile kopuru handia ibiltzen da atari horietan.

Bestalde, erakunde publikoen mende dauden 43 euskaltegiak badute Interneteko ataria. Haietako 18 udalen mende daude zuzenean, beste 18 udal-erakunde autonomoak dira, eta 7 mankomunitateen mendeakoak. Hiruk baino ez dute domeinu bakarra; gainerakoek, berriz, beren erakunde nagusien webguneen barruan dituzte atariak.

**Interneten ataria baduten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak, motaren eta barne hartzen dituen lurralde-esparruaren arabera. 2010-2019.%**



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila. ESPE 2010-2016. Atari Publikoen Direktorioa. ATARIKA 2019

### **Interneteko ataria duten erakunde publikoen ehunekoari dagokionez, Bizkaiko lurralde historikoari lotutakoak nabarmentzen dira (% 95,2)**

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen % 61,7k badute ataria Interneten, eta ehuneko hori 2016koa baino 4,6 puntu handiagoa da.

Euskarri horien sorkuntzari eta kudeaketari dagokionez, lurralderik dinamikoa Bizkaia da (erakundeen % 95,2), eta, haren atzetik, Gipuzkoa (% 84,7) eta Araba (% 21,4). Azken lurralde horren ehuneko txikia bertako 51 udalerrietan banatuta dauden 334 toki-erakunde txiki edo kontzejuei lotutako administrazio-egitura bereziaren ondorioa da. Arabako sei kontzejuk baino ez dute ataria Interneten. Kalkuluetan toki-erakunde txikiak kontuan hartu ezean, Arabako erakunde publikoen % 72,1ek izango lukete ataria Interneten.

2019an, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan diharduten erakunde publikoen % 92,2k dute ataria Interneten.

Azken hiru urteetan, 36 erakunde publiko gehiagok dute ataria Interneten (19 Gipuzkoakoak dira, 8 Arabakoak, 6 Bizkaikoak eta 3 Euskal Autonomia Erkidego osokoak).

### **Bost sozietate publikotik batek oraindik ez du ataririk Interneten**

425 erakunde publikok ez dute atari propiorik. Haietatik, 332 toki-erakunde txikiak dira, 46 sozietate publikoak, 15 udalerrien elkarteak, 11 mankomunitateak, 9 partzuergoak, 8 erakunde autonomoak eta 4 fundazioak.

### **Euskal Autonomia Erkidegoko udalek atari publiko guztien herenak baino gehiago kudeatzen dituzte (839); batez beste, 3,3 kudeatzen ditu bakoitzak**

Udalek 2.327 atari publikoen % 35,6 kudeatzen dituzte, Eusko Jaurlaritzak % 24,9 (579 guztira; haietatik, 510 ikastetxeak dira), sozietate publikoek % 12,3 eta partzuergoek % 10,7 (228 Haurreskolak Partzuergoko zentroak dira). Erakunde horiek, beraz, bost ataritik lau kudeatzen dituzte.

Erakunde publikoen atarien herenak (% 34,5) ikastetxeenak dira. Azpimarratu beharra dago, beraz, sektore horrek administrazio elektronikoan duen garrantzia.

### **Bost ataritik batek ez du berariazko jarduerarik, zeharkako zerbitzuak eta edukiak eskaintzen baititu hainbat funtzio-arlotan**

Atarien jarduera nagusia kontuan hartuta (funtzio-arloaren eta zerbitzu, izapide eta edukien banaketaren arabera neurtua), atarien % 84,4 biltzen dituzten bost jarduera nabarmentzen dira.

Sailkapeneko lehenengoak hezkuntzari eta ikerketari lotutako atariak dira (% 37,3), eta, haien atzetik, zerbitzu orokorrei lotutakoak daude (% 19). Salbuespenak salbuespen, jarduera hori askotariko zerbitzuak ematen dituzten udalei, mankomunitateei eta sozietate publikoei lotuta daude.


Hirugarrenak, berriz, kultura, kirol eta gazteriaren arloko atariak dira (% 14,7), eta, haien atzetik, industriari, berrikuntzari, merkataritzari eta turismoari lotutakoak ditugu (% 7,9). Azkenik, % 5,5 ekonomiaren eta ogasunaren arlokoak dira.

### **Sei atari berdintasun-arloko zerbitzu, izapide eta edukien eskaintzan espezializatuta daude**

Jardueraren garrantzi soziala kontuan hartuta, azpimarratu beharra dago 6 atari daudela berdintasun-arloan espezializatuta: 4 udalek kudeatzen dituzte, beste bat Eusko Jaurlaritzak (Berdingune), eta seigarrena 'Emakumearen Euskal Erakundea-Emakunde' erakunde autonomoarena da.

Bestalde, euskarari lotutako 76 atari publiko daude Interneten (guztien % 3,3), eta, haietatik, 43 atari euskaltegienak dira. Atari horien % 43,4 udalenak dira, % 27,6 erakunde autonomoenak, % 11,8 Eusko Jaurlaritzarenak, eta beste hainbeste mankomunitateenak. Honako erakunde mota hauetako bakoitzak euskarari lotutako ataria du: foru-aldundia, unibertsitate publikoa, fundazioa eta sozietate publikoa.

**Interneten ataria baduten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak, jarduera nagusiaren arabera. 2019.%**



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila. Atari Publikoen Direktoria. ATARIKA 2019

**Ohar metodologikoa:** ikerketa-esparru gisa, Eustaten 2017ko behin-behineko Administrazio Publikoen Direktoria (1.111 erakunde biltzen dituen) eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Unibertsitatez kanpoko Ikastetxeen Helbidetegi Orokorra (2018/2019 ikasturtekoa, 862 ikastetxe publiko biltzen dituen) erabili dira. Ez dira kontuan hartu egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten Estatuko Administrazio Orokorreko erakunde publikoak.

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**  
 Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz  
 Eusko Jaurlaritza. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila  
 Telf. 945 01 90 78 – Fax 945 01 90 29